

HERNANI BHI
Institutua
BATXILERGOA

● /2017-VI-1 osteguna /



“Urteetan zehar, emakumeak zapalduak izan dira gizarte matxista honetan.”

// III

**GAIA: Iskinetik
DOINUA: Martxa
baten lehen notak**

// IV

EMAKUMEEN BORROKA, GURE BORROKA!

«Emakumea naiz,
emakume hazi naute,
emakume sentitzen naiz
eta harro nago!»

// IV

Francoren bilobari gutuna

// II

Sare Sozialak

// II



I ANTZERKIGINTZA

Francoren bilobari gutuna

Badira urte batzuk euskal antzerkigintza berriz ere loratzen hasi dela, hainbat talderen elkarlanaren eta genero berrien garapenari esker.

HORREN adibide dugu "Francoren Bilobari Gutuna", *Artedrama*, *Le Petit Théâtre de Pain* eta *Dejabu Panpin Laborategia* taldeen batasunetik ateratako antzezlanak. Euskal Herriko bazter guztietako aktoreak bilduz, euskaldunon identitatea eta gure iraganeko traumak gai moduan dituen emanaldia prestatu digute.

Antzezlanean bertan, ospitale bat dugu eszenatoki modura. Hasieratik da agerikoa erietxearen finantziario falta, eta bertako gaixoei jasotako tratamendu prekarioek, pairatzen dituzte gaixotasun psikologikoekin batera, modu zehatzean islatzen dute euskaldunok gure

iraganarekiko dugun "tabú" jokaera. Gainera, ospitale azpian dauden fosil batzuk atera beharra metafora moduan baliatuz, frankismoak euskaldunengan utzitako arrastoak eta traumak "lurpetik atera eta aztertu" beharreko mezua transmititzen da.

2016ko urriaz geroztik euskal lurraldean barrena aritu dira antzezleak, 7 probintziako udalerrietan emanaldiak eskainiz. Hernanin izan genituen martxoaren 21ean, eta Hernani BHiko 2. Batxilergoko ikasleok emanaldiaz gozatzeko aukera izan genuen. Oraindik ere antzezlanak eskaintzen da biltza, eta hemendik ekainera bitartean falta diren emanaldi-

etarako sarrerak lortzeko aukera zabalik dago.

Hitz batean, historia, umorea eta errealitatea nahasten dituen antzezlan hau euskal antzerkigintza garaikidearen erakusle argia dugu; antzerkia egiteko modu berriak probatuz eta euskal kulturari denbora luzean falta izan duen bultzada emanez, eszenatoki gaineko euskal produkzio artistikoaren erreferente nagusienetako bat bilakatu arte. Zorionak, saio ikusgarria benetan!!

Egilea:
Mikel Martin



"Francoren Bilobari Gutuna"

I TEKNOLOGIA BERRIAK

Sare sozialak

Nola aldatzen diren gauzak, kamarada! Orain dela gutxi arte mugikorrek deiak egin eta jasotzeko eta SMSak bidaltzeko soilik erabiltzen genituen.

ETA orain? Orain gauza ia dena egin daiteke mugikorrarekin: musika entzun, argazkiak atera, jokoak deskargatu, e-mailak jaso eta bidali, nahi adina sare sozial erabili. Horiek guztiak teknologiararen aurrerapen biz eta indartsuak dira, baina gaurko gazteentzat eta ez hain gazteentzat menpekotasuna ere badira.

Gazteenei dagokienez, sare sozialei esker beste era bateko komunikazioa lortu dute. Esate baterako, munduko beste muturrean bizi den lagunarekin erraz komunikatu daitezke, eta hori aldi berean da sinesgaitza. Hala ere, erraztasun horrek gero eta gehiago lotzen gaitu tresnarekin eta gero eta gehiago irensten gaitu.

Izan ere, askotan denbora alferrik ematen dugu pantaila-

ren aurrean eta atzean, bata eta bestea kuxkuxean, ingurutik isolatuak, pertsonen arteko berotasunari uko eginez, teknologia ezin alde batera utzi, eroso baina bakarrik.

Hala ere, teknologia horrek berak aukera ematen digu gure kexak, salaketak edo protestak azaleratzeko. Gizarteak horren beharra ere badu, indarra ere egin dezake gauzak aldatzeko. Iritziak partekatu, batu, indartu.

Kontuz, ordea! Idazten duzun guztia, partekatzen duzun guztia hor geratuko da betirako. Ondo pentsatu idatzi aurretik eta ez jarri arriskuan zure pribatutasuna. Gozatu eta erabili sareak, baina arduraz jokatu!!

Egilea:
Nahikari Mateo



■ FEMINISMOA



Feminismoa eta herioa

Urteetan zehar, emakumeak zapalduak izan dira gizarte matxista honetan.

EMAKUME hauek gizonaren menpe bizi izan ziren zentzu guztietan; ez ziren batere askeak beren sentimendu eta pentsamenduak azaleratzeko ezta izaera propio bat edukitzeko ere. Gizonaren isla besterik ez ziren haien bizitzaren funtzioa horixe baitzen bere rol eta arauekin.

Ondorioz, milioika emakumeren jakituria, pentsamenduak, proposamenak eta haien presentzia ez dugu eduki (gizateriarentzat guztiz kaltegarria izan dena, bai gizonetzkoentzat eta batez ere emakumeentzat). Esan beharra dago beren esku-bide eta askatasunaren alde borrokatu duten emakume ausartek, oztopoak eta bortxazko erantzunak besterik ez dituztela jaso. Egon dira eta badaude milioika emakume gauzak aldatzeko gogoz, beraien gizarte egoeretan batez ere. Nazkatuak daude jada gizonetzkoen menpe bizitzeaz, gizonetzkoek nahi dutena izateaz panpina huts balira bezala.

Henry Ibsenek, idazle norbergiarrak (1828-1906), Errealismo garaian idatzi zuen "Panpinen etxea" obrarekin erlazioz, ondo azaltzen du emakumeen egoera garai horretan. Ibsenek XIX. mendearen bukaeran idatzitako ant-

zezlan honetan ondo irudikatzen du garai hartako bikoteen egoera. Azken finean, gizonak, Tovarlek, bere emaztea den Nora panpina bat izango balitz bezala tratatzen du. Torvarlek ez du bere emaztea maite, bere burua baizik. Horrela maitale "perfektu" bat sortzen du bere buruaren isla dena, alegia. Hain zuzen ere, Pigmalionek egin zuen moduan. "Pigmaliion" Ovidiok, idazle latindarrak (K.a.43-K.o.17), idatzi zituen metamorfosietako bat. Pigmalionek marfilezko panpina bat egiten du eta horrela emakume perfektu bat sortzen du, esentzia guztia desagertu dela ohartu gabe.

Bestalde, aipatu beharra dago emakume askoren babesbidea eta ihesbidea, gauza askoren artean, Artea edota Literatura izan zela. Ni, batez ere, Literaturan zentratuko naiz. Beraien pentsamendu eta sentimenduak azaleratu ezin ziztuzenez askok Literaturaren bidez egiten zuten, dena bere baitan ez gordetzeko eta haien arima ez galtzeko. Idatzi asko ez ziren argira atera ez zutelako horretarako eskubiderik (emakumeek etxeko lanak egiteko eta bere gizonari plazera emateko besterik ez zuten balio) eta beste batzuk berriz,

lortu zuten zenbait idazki argitaratzea, baina anonimatuan noski! Virginia Wolfek esan omen zuen "Ni ausartuko nintzateke pentsatzen hamaika poema idatzi zituen egile anonimoa maiz emakume bat izan zela".

Virginia Wolf (1882-1941) XX. mendeko poetisa eta eleberrigilea izan zen, Mugimendu feministan nabarmendu zena. Virginia Wolfek inoiz ez zien mugarik jarri bere adimen eta pentsamenduei, guztiz aske uzten baitzien. Virginia Wolfen akabera zinez literarioa izan zen, bere buruaz beste egin baitzuen poltsikoan harriak sartuz eta itsasoan hiltzen utziz. Lerro hauen hasieran ikus daitekeenez, koadroan Everett Millaisek Opheliaren heriotza margotu zuen eta Ophelia margotzeko modelo Virginia Wolfen ama izan zen. W. Shakespearek (1564-1616) "Hamlet" izeneko tragedian Ophelia pertsonaia sortu zuen. Antzezlan honetan Opheliak bere buruaz beste egiten du laku batean sartuz. Batzuetan benetan zaila da muga jartzen fikzioa eta errealitatearen artean. Baina, zein pentsamenduk eraman zituen bata eta bestea zorigaitzora? Zergatik ez ziren gai izan pentsamendu

horiek kontrolatzeko?

Pertsonaia literarioak (Ophelia) eta emakume errealeak (Virginia Wolf) erabaki zuten bere buruaz beste egitea, baina ez ziren bakarrak. Alfonsina Stornik, poetisa eta idazle argentinarra (1892-1938), gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzen zuen biziki. Alfonsina Stornik suizidioa erabaki aske bat zela zioen eta berak horixe bera egitea erabaki zuen. Itsasoan sartu eta bertan murgildu zen betirako, bere bakardadean itsasoaren bakardade hotzean...

Itsasoan, bakarrik, itotzen ari zirela nabaritzen damurik ez sentitzea... zeinpena handia izan beharko luketen emakume horiek beraien bizitzeko gogoak airean desagertzeko? Alfonsina Stornik omenez abesti eder bat egin zuen Mercedes Sosak:

...
Sabe Dios qué angustia te acompaño, qué dolores viejos calló tu voz, para recostarte arrullada en el canto de las caracolas marinas, la canción que canta en el fondo oscuro del mar la caracola.

Te vas Alfonsina con tu soledad, ¿qué poemas nuevos fuiste a buscar? una voz antigua de viento y de sal te requiebra

el alma y la está llamando, y te vas hacia allá como en sueños, dormida, Alfonsina, vestida de mar.

...

Maiz entzun dugu kostatik urrun bizi direnek itsasoari gaztelaniaz "el mar" esaten diotela eta itsasertzean bizi direnek berriz, "la mar" (emakume bat irudikatuz). Ni seguru nago Ophelia, Virginia eta Alfonsina ispiluan begiratzen ziren baita ikusten zutelaren beraien islan eta Itsaso zabalean aske murgildurik, olerki berrien eta mundu hobe baten bila abiatuko ziren.

Oharra: Martxoak 8an jakin nuen Mary Wollstonecraft (1759-1797), britainiar filosofoa eta idazlea (feminismoaren filosofiaren aitzindari kontsideratzen da) ere saiatu zela suizidatzen Thames ibaian bere burua botatzen. Nonbait ispilua-ren beste aldean itsasoaz gain ibaiak eta lakuak ere badaude... ■

Egilea:
Ainara Rivas

I BERTSOLARITZA

GAIA: Iskinetik

DOINUA: Martxa baten lehen notak

1. Goizeko seitan esnatu eta
Eguzkiaren distira
Egun berri bat hasiko dela
Esaten dit belarrira
Hala ta guztiz duda bat daukat
Izango al du gupida?
Ala hau ere izango ote
Beste guztien segida?
Ogi gogorra ahoan sartu
Tripa orroka ari da
Tren geltokiko ateak ere
Orain irekiko dira
Hotza hezurren barnean daukat
Ta barrura noa, tira
Ate ertzean eseri eta
Jarri naiz denei begira

2. Zubi azpian lo egin dut gaur
Gaua ez da izan motza
Manta fin batez estali naiz ni
Eta sentitu dut hotza
Seme-alaben dar-dar horiek
Izoztu nire bihotza
Baina hotz hori salda beroak
Ere ezingo du goxa
Baina nik orain beraiengatik
Lortuz edonola sosa
Aspaldi dauka nire beharrak

Urrutiratuta lotsa
Tren geltokiko bidaiariak
Dute begirada arrotza
Baina noizbehinka entzun dezaket
Zentimo batzuen hotsa

3. Oraindik gogoan daukat nola
Zeharkatu nuen muga
Gaur bertan gerta izan bailitzan
Senti dezaket nik hura
Garrantzitsua izan zelako
Urte horretako uda
Jasan genuen sufrimendua
Datorkit ere burura
Txalupa txiki hartan guztiok
Inguruan soilik ura
Bidaia arriskutsu horretan
Heriotzarekin guda
Gu lurreraino heldu ginen ta
Beste batzuk joan zerura
Begiak malkoz gainezka ditut
Eta barnean tristura

4. Lurrera iritsi ginenean
Animalien gisako
Estatuaren diru laguntzak
Ez zirenez guretzako
Etsipenaren esklabo ginen

Isuriaz zenbait malko
Eta zulotik ateratzeko
Indarrak hartu beharko
Atzean penak utzi genitun
Ta aurrera egin salto
Pausu bat gora eta bi behera
Pixkanaka goazelako
Baina hau dena ez da normala
Ta sufritu dugu asko
Ta haserreak menperatu nau
Hau justua ez delako

5. Begiak tren geltokian jarri
Ezkutatua samina
Nahiz eta beti nire aurpegian
Sumatu daiteken mina
Zenbat pertsonak zapaltzen
duten
Nire geltoki zikina
Batzuek neke ta errutina
Ta beste batzuek grina
Baina inor ez da gerturatzen,
Bakarrik dago iskina
Ta nik eskean jarraituko dut
Hala egin dut ta zina
Ez leku hori ta ez bestea
Ez da niretzat egina
Hortaz, askotan iruditzen zait
Naizela ikusezina

6. Jende aberats eta pobreak
Ez daukate inoiz bake
Zerbait hobea nahi dute eta
Ez dago niretzat tarte
Beren buruan pentsatzen dute
Ta ez beste inor maite
Zoriontasuna behar dute ta
Ez zaie inporta bat'e
Niri goseak ta diru faltak
Sortzen dizkit zenbait kalte
Estereotipo, dirua eta
Boterea haien kate
Beraiek beti ta egunero
Milaka kexa dauzkate
Eta ni haien bizitzarekin
Konformatuko nitzake

7. Egun luzea igaro dut nik
Ta badoaz hau ixtera
Kaxan zentimo asko ez dago
Baina da betiko bera
Ogi zati bat eros dezaket
Ta konformatuko gera
Beti bezala hori jan eta
Joango gara ohera
Dirua jaso ta oso mantso
Irteten naiz ni kalera
Positiboa naiz hala ere

Eta esaten dut zera:
Irabazia sekula ere
Ez da izango galera
Eta banoa berriro ere
Zubipeko nire_etxera

8. Seme-alabak ikusi_aurretik
Sentitzen dudan zirrara
Momentu hortan besarkatuta
Gu zoriontsuak gara
Horren bidez aska dezakegu
Dugun edozein ikara
Ta arazoak txiki bihurtu
Denok elkarrekin bada
Ogi zatia pozik jan dugu
Goxoa zegoen, hara!
Eta berriro tristatzen gara
Sentitzean hotzikara
Baina hala (e)re galduko dugun
Azkena esperantza da
Muxu maitekor goxo batekin
Bagoaz denok lotara II

Egilea:
Naroa Aguirre Arozamena

I FEMINISMOA

Emakumeen borroka, gure borroka!

Emakumea naiz, emakume hazi naute, emakume sentitzen naiz eta harro nago!

Historian zehar emakumea mespretxatua izan da, ez digute irakatsi emakumeon lorpenik, emakumeak inolako aurkikuntzarik ez duela egin dirudi; izan ere, ezagutzen al duzu emakume ospetsurik bere lorpenak dirrela eta historian zehar? Eran-tzuna oso erraza da, gaur egun arte inork ez zuen ezagutzen emakumerik lorpen handiak dituenik. Gaur egun arte, gizona

izan da intelektuala, langilea ... Dena gezurra.

Emakumea zulo ilun, huts eta lanez betetako batean bizi izan da. Zulo horretan, inork ez dio lagundu, inork ez dio eskerrik askorik esan, baina, honek lanean jarraitu du. Burua markurtu eta lanean segitu du. Agian, edo, seguruenik, ez da bere gustukoa izan. Kanpora atera eta gizonen munduan sen-

titu nahi du, baina mundu matxista honetan, oso zaila da hori lortzea.

Gizonek uste dute gauza politak esan eta dena ondo dagoela, "Kaixo ederra" esan eta dena konpondua dagoela eta kasu pixka bat eginez gero, gurekin nahi dutena egiteko libre-ak direla. Baina EZ!

Mundua horrelakoa da, nazkagarria, zapaltzailea, mes-

pretxuz betetakoa eta guk hori onartu dugu. Emakumeentzat mundua itsas bortitz bat da, hara eta hona, ekarri eta eraman egiten gaitu, tarteka kolpe ederrak hartuz.

Mundu hau aldatu nahi dut! Ez dut nire ondorengok, nire amonak jasandakoak jasaterik nahi. Mundu libre batean bizi nahi dut, mundu libre eta berdintasunez betetako batean.

Inork zapalduko ez gaituen batean. Horixe da nik nahi dudana, LIBRE IZATEKO BORROKATU NAHI DUT!

Emakumea naiz, emakume hazi naute, emakume sentitzen naiz eta harro nago! II

Egilea:
Ainara Manterola